



euskotren

Proiektu zbk.: 2016/10

Enpresa: **EUSKOTREN**

Erorketarik ez altuera maila desberdinerara

Helburua eta aurkezpena: Tren eta tranbien zirkulazio eta mantentze-lanetan, altuera-maila desberdinen eraginez, ISTRIPURIK EZ izatea. KONPONBIDE BERRITZAILEAK diseinatu eta ezartzean oinarritutako ERORKETARIK EZ PROIEKTUAK bi jarduera ildo jarraitu ditu; 1- S950 trenbidearen unitate berrietara iristeko gunean erortzeko arriskua gutxitu ahal izateko neurriak ezartzea, unitateen jatorrizko diseinua aldatuta, eta bazterguneetan (lurraren mailan, ez nasaren mailan) tren-unitateetara iristeko eskailera finkoak instalatzea, eta 2- mantentze-lanetako hobietan jarduerak iraun bitartean erortzeko arriskurik ez izateko neurriak garatzea.

Egindako hobekuntzak: S950 unitateetan diseinatu eta txertatutako sarbidean erortzeko arrisku txikiagoa dago, honako neurri hauei esker: sarraila bikoitza eta tamaina handiagoko iristeko eskailera-maila instalatzea, kokapen egokiagoarekin, atearentzat euskailua ezartzea eta eusteko barrak instalatzea.




Peldaño de acceso en las unidades S900



Peldaño diseñado para las unidades S950



Tren-unitateen baztergunea egiten den lekuei dagokienean, altuera-maila desberdinerara erortzeko arriskua kendu egin da, neurrira egin-dako eskailerak instalatzearen bitartez.



Erortzeko arriskua gutxitu eta kendu ahal izan da babesak instalatuta, eta segurtasun-eremuen mugak ezarri dira.



Bereizgarriak: istripu-kopurua kontuan izan da, nola antolakuntzako langileen artean, hala enpresa kontratatzaileen artean. Ezarritako neurriekin, maila desberdinerara erortzeko arriskua kentzera iritsi da. Proiektua garatzen ari zen bitartean, enpresa fabrikatzaile eta eraikitzaileekin elkarlana gauzatu da. Horri esker, neurri horiek aintzat hartu ahal izan dira beste proiektu batzuetan; Segurtasun eta Osasun Batzordearen bitartez, langileek konponbideak diseinatzeko parte hartu ahal izan dute, eta S950 unitateetara iristeko sarbide berria emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna gutxitu da, iristeko une horretan.

Prozesuaren deskribapena: S950 unitateetara iristeko sarbide berria garatzearekin, hobekuntza bakoitza diseinatu da lehenengo (sarraila bikoitza, eskailera-maila berria, atearen euskailua eta eusteko barrak), prototipoak garatzea eta funtzionamenduko frogak egitea. Beste alde

batetik, neurrira egindako eskailerak instalatzeari eta hobiak nahiz pasabideak babesteari dagokionez, prozesua apur bat errazagoa izan da, eta haren barruan instalazioaren azterlan bat egin da lehenik, neurririk egokienak diseinatzeko, eta, ondoren, ezartzeko.

Lortutako emaitzak: altuera-maila desberdinera ERORKETARIK EZ proiektua ezartzeak istripu kopurua jaitea eragin du trenbideetako eta tranbien zirkulazioan, 2015ean ISTRIPURIK EZ izatea lortuz, eta trenbideetako eta tranbien mantentze-lanetan istripu-kopurua gutxitzea, 2015ean ISTRIPURIK EZ izatea lortuz horretan ere.